



TERESATXO DEUNA

—○○—

IGARO dan ileko zenbakian nik eta orain Ernakulan'go (India) karmeldaren ikasguan irakasle dagoan Anbortzi Aba ospatsuak auferagokoetan zer edo zer esan gendun Teresatxoren guraso ta aiztietzaz, onen ondoren beratzaz zer bait esateko asmotan. Baña guk esan geinkezan baño askozaz obeto Terese'k berberak diñoskuz bere bizitz laburko gauzak. Ofaitiño nai geunkezan aña zeatz ez. Olan, ba, auferantzeko idaz-lantxoetan berak dirauskuna euskeraldu ta, apaltasunaren edo, ixilik itxi ebazan zerak albait egokien edestuko doguz.

Teresatxo'ren jayotza.—Negu gogofa, otzak gorputz-azufai dardar eragin oi dautsen aroa zan, XI'garren Pi Doipuru agurgafiak diñoskunez, zeru-lurak liluratuko ebazan lora eder apain guri mardoa, gaudi osoa zerutar lufunez usaindurik bere lotatzai jafaika gogo txiki aldra andia zorionera erakafiko eban «Josu'ren Loratxo» lufean agertu zanean.

Alenzon'go efian, 1873'ko Urtafilarren 2'an, eguenean, gabeko amaika ta erdietan jayo zan; ain zuzen be Mans'ko lekaimetxean azten egozan aitzak etxean aurkituten zirala.

Nik ezin neinke senar-emazte zoriontsu bi arein poza itzez azaldu. Nor etzan, ba, poztuko Jaungoikoak eskar utsez beste alabatxu bat emon ba-eutsoen?

Kedats-lufuna bailitzan, odehyak uratuz Irubatasun gurgafiaren aufera laster igon zan Zelia'n biotz kistafetik urteniko eskari au: «Emon daustazun alaba onen gogoko baratz gazteko lilia, ez begi, Jauna, oben astunak iñoz igertu; beste bere lau neba-afebak eroan dozuzan lez, ondo ba-deritxazu, eroan au be, obenak ikutzea baño nayago dot eta».

Pozafen, biotzak taupada gogofak emotsozala, goiko oñera igon zan senaía bitartean, loak artuta egozan alabai aizatxo bat geyago eukela iragarten. Miren, bekoen izketa-marmafak itxartuta, orduko oe gañean, jagiteko itxuran egoan; Pauline, bafiz, jantzita, bera orduantxe jasteko, gauza pozgafiren bat jazoten zala garai atan ba-ekian eta; baña aitak, zufuka lo gozoan ziran Lonitxu ta Zeline iratzarteke, biaramon goizean ikusiko ebela-ta, ezeren bildur bariik, gozoro lo egiteko agindu eutsen.

Ufengo egunak txifist egin ebaneko, dzanda baten oetik jagi ta maletan bera afapaladan jatzi ziran edur zuria zirudien sein-oyalakaz batuta, mao-morgiía lakoxe buru gofia agirian ebala seaskan (kuman) zetzan aizatxo sortu bafia ikusten. Euren bafu alai gozoetako atsegiña zelan adierazo ezekiela, txaloka, kriskitinka amaren etzangura (gelara) eldu ta egun sentiak baxen betozko afayakin egun onak emon eutsoezan. Gero, seaska bafuan lo egoan txikia laurak batera ikusi naita, ixi-ixilik, arnas geldika, kuma-ertzera uferatu ziran, Gabonetan Ume Jesus datzan saskietara letxe. Baña Zeline, oindiño afa gitxiko txidafa zalako, seaska biran durduri ebiñan jo ara ta jo ona bafuko pospoliña ikusterik jadetsi ezinda; ofaitiño esku aldera eukan jarlekua artu, bere gañean zutik jafi ta guraña ase eban bere ikuskurea. Arein zufumufuaz lotan egoan txikia itxartuta, oskarbiko izafen antzeko begiak erdi edegi ebazan. — «Amatxo—iñoan orduan batek—, au dan edefa ta txotxana! Begitxoak ikusiko ba-zeunskioz! Eder urdiñagoak dira, eder urdiñagoak..!—Ene! Ezpan gofiskak bafe ifika ditu!—zirautson beste batek—; amatxo, erdu berau ikusten!» Ufumaka ta txioka, ama jatekoaz abi-egalera egaz doyanean, txorikumarik eztozu iñoz ikusi? Bardin-bardin egoan gure kaskafa biran ainbat lagun ikusita.

Egun osoa igaro eben, jayotegunetan ekandu dan lez, pozik eta zoriontsu. Baña etxekoak bakafik ez eben jai izan; eguzkiak be ortzeko odei-mordo lodiak ufatuta, tontor erpiñetako edufak lafosaz estaldurik, efañu epelak bialduten ebazan. Otzak eraginda orma-zuloetan ostendutako txori egazlariak zugatz-adafetan zoli ziarduen txortxor samufean; ta, atzenez,—Gabonetako Gotzonak igofitako bezuza, edo obe-

to, erdi-ondoko atsolofa edo—eskuan ingi-txatal bat ekafela, itzaltsu, eguna aterik ate eskean emon eta gero baldin bada, atean oles egin eban mutikotxoak jai arteko eun-oyalari azkenengo lorea ezafi eutson. Olerki edo bertsu polit batzuk etozan ingi-txatalean, ta onela inoen:

Anditu bizkor, loratxo, ifi ta bafetsu;
Ludi osoak zorion utsa nai dautzu.
Egun sentiak bafe dagitzun artean
Laztan ta mosuz beterik azi bai jori.
Maite minduten dozun ufezko kio ori,
La'osa izango zara egunen batean.

Itz neurtu onen zoragafizko azalpean egiazko iragarkia gordetan zan beraz. Maitasunezko loratxo bat izan zan, baña lufari laster agur egin eutsan: *goiz bat bakar-bakarrik* bertan egin eban.

Ugutza.—Jai onen ondoren ugutzau (batiau) egin bear zan jayo bafia; baña aitabitxirik etzan agiri. Zelia luze eritxita egoan bere alabarik pitin baten be zerurako eskubide barik ez eban euki gura-ta. Eldu zan azkenez aita besoetako ori: Paul Alberta Boul eritxon amabi urteko mutil gaztea.

Jayo ta ogei ta amairu ordu bafu, Urtafila'ren 3'an, andikiro ugutzau eben Alenzon'go eleiza nagusian, ta Miren Pantzeske Terese izena ezafi eutsen.

Jatofizko obena garbituteko dan ur bizidun itufi garden artean aingeruak afituta eukiko zituan egunean, gogoa betiko donetsi eutson goi-eskafa oparo bafendu yakon. Eleiza Ama Deunak ugutz-ikurtonaren bitartez bere magalpean artu eban, ta auferantzean Kisto'ren emaztegei onek goitiko irakatsiak argitu ta bildots kutsugearen odolaz janarituko eban. Onela, lokafi estu ta ezauskofakaz lotuta, oben lafiak egundo ez ebazan eten al izan bere ariak eta Teresatxu magalpe ofetatik bein be igesik egin baga pozafeñ bizi ta il zan.

S. ONAINDIA, K. O.

(*Jaraituteko*).